



Parte Zaharrean Bizi AUZO ELKARTEA


Donostiako Udalak ordenantza fiskal bat dauka hondakinak biltzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzeko. Halaber, urtez urte zerbitzu horrengatik [kobratuko dituen tasak](#) onartzen ditu. Datorren urterako % 26,5eko igoera onartuta dago jada.

Tasen arauketan **isildutako atal** bat dago, batere jakitera eman ez dena, non herritarrak tasa ordaintzetik salbuesten diren bilketa-zerbitzuak ezarritako baldintzak betetzen ez dituenean. Horrela, edukiontzietatik **200 m baino gehiagora dagoen eraikin** batean bizi direnek, edo **100 m baino gehiagora** dagoen eraikin batean bizi eta edukiontzietara heltzeko **% 6ko desnibel metatua dutenek**, ez dute tasrik ordaindu behar (7-1 artikulua). Era berean, **% 50eko hobaria** izango dute **100 m baino gehiagora** dagoen eraikin batean bizi eta edukiontzietara heltzeko **% 3ko desnibel metatua dutenek** (9-1 artikulua).

Nahiz eta Udalak izan ordenantza onartu zuena, edukiontzia non jarri erabakitzentzu duena, eraikinen eta edukiontzien arteko distantzia zein den erabakitzentzu duena, ordaindu behar ez duten helbideak ezagutzen dituena, hala eta guztiz ere, **Udalak tasa osoa kobratzen du** eta kaltea jasaten duten bizilagunek eskaera egin behar dute udalak ordainketatik salbu uzteko.

Baina nork dauka tasen salbuespen horien berri? Nork daki distantzia 201m-koa edo 199m-koa den? Nork daki zein den metatutako desnibela? **Udalak egin ditu arauak, baina, bere abantaila bilatuz, arauak isildu eta inhibitu egiten da**, auzotarren kaltetan.


Planoan kontainerren kokapenari begiratzea nahikoa da ulertzeko Parte Zaharraren barrualdean eta Kaian bizilagunak egon daitezkeela, Udalaren hiru hileko zaborren tasa kobratzen zaiena, kobratu behar ez denean.



Kontsulta egin dugu Udaletxean, jakiteko zein helbideri dagokien ordainketatik salbuetsita egotea, baina saileko teknikariarekin bilera bat eskatzeko erantzun digute; bilera eskatu dugu orduan, baina teknikaria bajan dago. Beraz, beste idatzi bat bidali dugu gure zalantza zehatzak azalduz. Erantzunaren zain gaude.

Gauzak honela, Udalak soilik dauzka datuak eta ondorioz, ezin dugu zehatz-mehatz jakin eskaera¹ bat onartua izango den ala ez. Guk *GeoDonostia* eta kartografia erabili ditugu, ikusteko **GUTXI GORA BEHERA** zein erkidegok eska lezaketen zabor tasen salbuespena. Beraz, beheko zerrendan “mugan” dauden atariak **zalantzazkoak** dira.

(1) 200 m-ko distantzia atarian hasten da, baina lehenengo edukiontziraino kontatzen da ala erdian dagoeneraino?/ Errefus-frakzioa biltzeko edukiontzia bada leku batean dagoen bakarra, Udalak interpretatzen du etxetik edukiontzi horretainoko distantzia dela kontutan hartzen dena?



% 100eko salbuespena,
edukiontziatik 200 m baino
gehiagora egoteagatik

Atariak

Abuztuaren 31a: **17 / 19 / 25 / 27 / 29 / 31 / 33 / 36 / 38 / 40 / 44**

San Jeronimo: **20 / 22 / 23 / 25**

Juan de Bilbao: **14 / 15 / 17**

Kaia % 100eko salbuespena,
(papera, beira eta organikoaren
edukiontziaraino 200 m-ko
distantzia hartzen bada,
errefusarena beste leku batean
baitago)

Atariak

Kaiko pasealekua: **18 / 19 / 25 / 26 / 27 / 28 / 29 / 30 / 31 / 32 / 33**

%50eko hobaria (Mari kaleko
maldak % 3ko malda metatua
gaindi dezake)

Atariak

Koruko Ama Birgina: **2 / 4**

Kanpandegi: **9 / 10**

Gaztelurako igoera: **1**

Bizilagunok, eskaera betetzera animatzen zaituztegu. Goikoa jauregira (Ijentea 6) eraman behar da (hobe hitzordua eskatzea 943481000 edo 900714033 telefonoetan) edo [eskaera telematikoki bidali](#).

Zalantzatan bazaude, hobe da eskaera egitea eta Udalaren erantzunarekin jakingo duzu onartua izan den ala ez.

Galderarik bazenu:

-idatzi Elkartearen epostara: partezaharreanbizi@gmail.com

-bestela zatoz Elkartearen lokalera (Ikatz kalea,2), abenduaren 3an, asteartea, 19:00etan.



Parte Zaharrean Bizi AUZO ELKARTEA

El Ayuntamiento de Donostia cuenta con una ordenanza fiscal que regula las tasas a pagar por la recogida de residuos. Asimismo, año a año aprueba las [tasas que va a cobrar](#) por dicho servicio. Para el año que viene ya está aprobado un incremento del 26,5%.

En la regulación de las tasas hay un **apartado silenciado**, para nada dado a conocer, donde los ciudadanos **quedan exentos del pago** de la tasa cuando el servicio de recogida no cumple con unas condiciones establecidas. Así, quienes habiten en un **inmueble situado a más de 200m** de los contenedores o habiten en un inmueble situado **a más de 100m y tengan un desnivel acumulado del 6%** para acceder a los contenedores **no deben pagar ninguna tasa** (art 7-1). Asimismo, están **bonificados en un 50%** quienes habiten en un inmueble situado **a más de 100m y tengan un desnivel acumulado del 3%** para acceder a los contenedores (art 9-1).

Pese a que es el Ayuntamiento quien aprobó la ordenanza, quien decide dónde colocar los contenedores, quien dictamina cuál es la distancia existente entre los inmuebles y los contenedores, quien conoce qué domicilios no deben pagar, pese a todo ello, **el Ayuntamiento cobra la tasa completa** y corresponde a los vecinos y vecinas perjudicados solicitar la exclusión del pago.


Pero ¿quién sabe de esas exenciones de las tasas? ¿Quién sabe si la distancia es de 201m o de 199m? ¿Quién conoce el desnivel acumulado? **El Ayuntamiento ha hecho las reglas pero**, de una manera ventajista, **se las calla y se inhibe** en perjuicio del vecindario concernido.

Basta mirar en el plano la localización de los containers para comprender que hay vecin@s del interior de la Parte Vieja y del Puerto a los que el Ayuntamiento ha podido estar cobrando la tasa trimestral de basuras sin que debiera habérsela cobrado.



Hemos consultado en el Ayuntamiento para conocer qué domicilios deberían estar exentos del pago o bonificados pero nos han respondido que solicitáramos una reunión con el técnico del departamento; hemos pedido una reunión pero el técnico está de baja así que hemos enviado un nuevo escrito con las dudas concretas a la espera de una contestación.

A falta de los datos certeros y de conocer los criterios para aceptar o no una solicitud¹, que sólo los puede dar el Ayuntamiento, hemos utilizado la cartografía para, aproximadamente, ver qué comunidades podrían solicitar la exención de las tasas de basuras. Por ello marcamos en color azul los portales que pueden estar en el “límite”.



Exención del 100% por estar a más de 200m de los contenedores	Kaia (exención del 100% (si se considera la distancia de 200m a los contenedores de papel, vidrio, orgánico, puesto que el de rechazo está en otro lugar)	Bonificación del 50% (la pendiente de la calle Mari podría superar el 3% de pendiente acumulada)
Portales: Abuztuaren 31a: 17 / 19 / 25 / 27 / 29 / 31 / 33 / 36 / 38 / 40 / 44 San Jeronimo: 20 / 22 / 23 / 25 Juan de Bilbao: 14 / 15 / 17	Portales: Kaiko pasealekua: 18 / 19 / 25 / 26 / 27 / 28 / 29 / 30 / 31 / 32 / 33	Portales: Koruko Ama Birgina 2 / 4 Kanpandegi 9 / 10 Subida al castillo: 1

Animamos a los vecinos y vecinas a que rellenéis la solicitud y la entreguéis en el palacio Goikoa, Ijentea 6 (mejor pidiendo cita previa en el 943481000 o 900714033), o bien [enviéis la solicitud telemáticamente](#).

Ante la duda, es mejor hacer la solicitud y esperar a la respuesta del Ayuntamiento (sea afirmativa o negativa).

Para cualquier consulta:

- escribir al correo de la Asociación: partezaharreanbizi@gmail.com
 - acudir al local de la Asociación (Ikatz kalea 2) el martes 3 de diciembre a las 19h

1 La distancia de 200m comienza en el portal y va hasta el primer contenedor o hasta el situado en el punto medio? / Si sólo hay un contenedor de recogida de la fracción de rechazo, el Ayuntamiento interpreta que la distancia es desde el domicilio hasta ese contenedor?